

Lugoko ondare kulturalaren ondasunak bildu eta babes- teko helburuz, 1932an Lugoko Aldundiak, Lugoko Pro- bintzi Museoa sortzea hitzartu zuen, bi urte beranduago San Markos Jauregian material arkeologikoa, historikoa, artistikoa...zuten zenbait areto zabaltzean gauzatu zen asmoa, (Luis Lopez Martí jn.-ren zuzendaritzapean), or- dura arte bilduma partikularretan sakabanatuak. Eten- gabeko funts hazkundeak eta espazio mugak, 1957an Museoa antzinako San Frantzisko komentura lekual- datzea behartu zuten. Zenobio zahar honen hiru gela kontserbatuta (sukaldea, klaustroa eta errektorioa), Manuel Gómez Román (1875-1964) Vigoko arkitekto jn.-k galiziar jauretxe itxurako eraikuntza berria disei- natu zuen. 1962ko martxoaren 1ean, Lugoko Probin- tzi Museoa, Kultur Intereseko Ondare izendatu zuten. 1997an Museoa handitu egin zuten, Gonzalez Trigo ar- kitektoaren proiektuari jarraituz.




Praza da Soidade
27001 Lugo
T +34 982 242 112
F +34 982 240 240
www.museolugo.org

MUSEO PROVINCIAL DE LUGO

Euskera



DEPUTACIÓN DE LUGO
VICEPRESIDENCIA PRIMEIRA



MUSEO PROVINCIAL DE LUGO

BEHEKO SOLAIRUA

1. **ERREFEKTORIOA:** XVIII. mendekoa, kanoi gangadun estaldura-ekin eta hargintza pulpituarekin. Lugoko probintziako eraikuntza tradizionalen maketa- bildumak biltzen ditu .

2. **SUKALDEA:** (XVIII. m.) Honetatik bere hargintzazko "lareira" delako sutondoa da aipagarria, harri-hormako tximinia ikusgarriarekin. Tradiziozko galiziar sukaldearen berezko tresnak eta altzariak ditu.

3. **KLAUSTROA:** (XV-XVIII. m.-a) Kultur Intereserako Ondare izendatua 1931n. Bere korridoreetan bilduma zabal eta ugaria dago: eguzki-ordulariak (zaharrena 1685ekoa da), erromatarren garaiko eta ertaroko epigrafia-bildumak (aldareetan, esteletan eta milaharrietan), heraldika, kapitelak, sarkofagoak, hilobietako hilarriak, eta garai desberdinetako harrizko eskultura laginak daude. Sta. María de Fragas-etik (Campo Barrizal-Pontevedra) ekarritako baldakin gotiko baten lau atalak dira bereziki azpimarragarriak, Testamentu Berriko irudiak erakusten baitituzte.

3 (bis): **Antzinako kapitulu-gelara sarbidea:** Erromatarren garaiko hondarrak biltzen ditu, adibidez: hilarri baten zatiak, Saako (Lugo) toga-eskultura, eta Bideetako etxe-jainkoei eskainitako botozko aldea, eta baita Castillonetik (Pantón) etorritako bi hilarri diskoide anepigrafiko (K.o. IX-XI m.) ere.

Atondoa: XVII-XVIII. mendeetako Bargas-ko egurrezko altzariak.

4-5-6. **ELIZ-ARTEA:** XVetik XX. mendeetarako erlijio gaiko pintura, batez ere italiar eta espainiar eskoletakoak. Eskultura erromaniko, gotiko, errenazentista eta barrokoa. **Arte txikiak:** Zilarrezko prozesio gurutzeak (XVI-XVIII. mendeak) eta erabilera liturgiko eta erlijiosoko objektuak eta apaingarriak.

7. **MOSAIKOAK:** Erromatar mosaikoak (K.o. III. Mendea) eta Crecenteko hilarria (K.o. I-II. mendeak)

Lehen solairura igotzeko eskailera neobarrokoa. Atondoan, Francisco Asorey galiziar eskultore handiaren lanak: *San Ramon eta San Frantziskori Eskaintzak*.

LEHEN SOLAIRUA

8. **URREGINTZA:** Eskumuturreko, belarritako, besoko bilduma oso garrantzitsua eta urre eta zilarrezko beste ale batzuk, batez ere Burdinezko Aroan eta Castroar kulturaren (horietako asko Alvaro Gil jaunaren bildumakoak).

9. **HISTORIAURREA ETA ARKEOLOGIA:** Goiko klaustroko Ipar, Ekialde eta Hegoaldeko zati bat hartzen ditu. Paleolitikotik hasi eta Lugoko probintziako Erromanizaziora bitarteko objektu erakusketa.

10. **NUMISMATIKA ETA MEDAILAGINTZA:** K. a. III. mendetik K. o. XX. mendera arteko txanponak, iberiar penintsulak bizi izandako ga-

rai historiko desberdinen ezaugarri direnak. XVIII, XIX eta XX. mendeetako medaila oroigarriak.

GALIZIAR ARTEA

11. **ATXABITXIAK ETA URREGINTZA:** Konpostelako atxabitxi (XVI-XVIII. mendeetakoak) eta XVIII eta XIX. mendeetako herri urregintza ("sapo" direlako lepoko aipagarriekin) erakusketa.

12. **PINTURA: ERROMANTIZISMOA ETA ERREGIONALISMOA.** XIX eta XX. mendeetako artistak (J. Pérez Villamil, Dionisio Fierros, Leopoldo Villamil, Vaamonde, Román Navarro, Serafín Avedaño, Francisco Llorens, Quintás Goyanes, Seijo Rubio, Sotomayor, Manuel Abendela, etab.) Garai honetako galiziar plastikaren adierazgarri. X. Pino, M. Picallo, Otero Besteiro eta Bonome-ren **eskulturak**, beste batzuen artean.

13. **BANGOARDIA HISTORIKOAK ETA GERRA ONDORENA.** Lugoko Tino Grandío eta Maruja Mallo-ren lanak, eta baita Colmeiro eta Castelao-renak ere.

14. **FIGURAZIOAK ETA ABSTRAKZIOAK.** Alfonso Abendela, Felipe Criado, Sucasas, Blas Lourés, Luis G. Pacios, López Guntín eta Raimundo Patiño-k irudikatutako joerak.

15. **ANTONIO FERNÁNDEZ,** Pontevedrako artista da. Zenbait urtez Anticolin bizi izan zen. Herri hori mota errelistako bere lanean asko agertzen da, eta paisaiak eta argiak eta koloreak eragindako kezkak dira nagusi.

16. **XULIA MINGUILLÓN,** Lugoko artista hau lehen emakumea izan zen 1940 an Arte Ederretako Erakusketa Nazionalan bat lortzen, *A escola de Doloriñas* bere lan ezagunenarekin.

17. **XESÚS R. CORREDOIRA,** Lugoko margolaria, Plá, Zuloaga eta Sorolla-ren ondorengoa, *El Greco*-ren eragin nabarmena ere badu, eta agertzen dituen lanetako askotan nabaria da.

18. **ESKULTURA:** Ramón Conde, M. Picallo, Puchades-en lanak eta Xosé M.^a Acuña-ren herri-irudikapen multzoa.

19. **SARGADELOS-EKO LOZA:** Zeramika-bilduma garrantzitsua, XIX. mendean Sagardeloen Errege-Fabrikaren 4 aldietan egina.

20. **ZERAMIKA ETA BEIRA:** Zeramika urreztatu laginak (Manises, Muel) esmaltedunak eta margotuak (Talavera, Puente del Arzobispo) eta estanpatua ("La Cartuja", Cartagena). San Ildefonsoko "La Granja" fabriketako beirak eta kristalak.

21. **ABANIKOAK, ORDULARIAK ETA ERRETRATUAK:** Dekorazio eta industria arte aleak, eta Esquivel, González de la Peña, Vales Pinto eta Madrazok egindako erretratuak erakusten diren aretoa.

22-23. **ARTE MODERNOA ETA GARAIKIDEA.** Barrokotik XX. mendeko abangoardietarainoko pintura, besteak beste, Peter Roos, Carlos de Haes, Álvarez Dumont, Nicolás Soria, González Bilbao eta Cruz Herrera-ren lanekin. XX. mendeko eskultura: Ignacio Veloso,

José Fioravanti eta Otero Camps, erakusketako aleen artean, Torre-Isonza-ren *Piedad* da azpimarragarriena. Areto horietako erakusketan dauden lanetako asko Pradoko Museo Nazionalaren eta Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazionalaren gordailuak dira.

24-25-26-27. **GALIZIAKO ARTEA: MARRAZKETA ETA GRABATUA.** Castelao, Castro Gil, Prieto Nespereira, eta abarri eskainitako aretoak.

28. **ARGI-ARMIARMAK.** José Varela Dafonte Jn.-k emanak, garai desberdinetako (sirio-palestindarrak, helenistikoak, erromatarak, bizantziarrak eta islamikoak) argi-armiarma bilduma interesgarri eta bitxia da K.a. 2300 urtetik K.o. XV. mendera doan kronologiarekin.

